

Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

Inflazioa da herrialde bateko ondasunen, zerbitzuen eta produkzio faktoreen prezioen hazkunde **orokor** eta **iraunkorra**.

Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

Inflazioa neurtzeko **inflazio-tasa** erabiltzen da

Inflazio-tasak islatzen du **ekonomiako prezioen indizeak izan duen aldaketa ehunekotan.**

$$\text{Inflazio-tasa } t \text{ urtean } (\pi_t) = \frac{(\text{prezioen indizea } t \text{ urtean}) - (\text{prezioen indizea } t - 1 \text{ urtean})}{\text{prezioen indizea } t - 1 \text{ urtean}} \times 100$$

Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

Zer da **prezioen indizea**

Ondasun eta zerbitzu batzuen prezioen batez besteko haztatua da. Bera egiteko, ekonomilariek prezio bakoitza neurtzen dute ondasun bakoitzaren garrantzi ekonomikoaren arabera.

Inflazioaren kotzeptua eta neurketa

Oinarrizko epealdian prezioen indizea 100 izango da beti. Hala izanik, prezioen indize bat 115 bada, zer esan nahi du horrek? Horrek esan nahi du t urtean indizeak biltzen dituen ondasun eta zerbitzuen kostua % 15 handiagoa dela oinarrizko urtean baino

Inflazioaren kontzeptua eta neurketa

Prezioen indizerik ezagunena eta erabiliena kontsumorako prezioen indizea da (KPI; gaztelaniaz *Índice de Precios al Consumo* edo IPC).

Soldatak edota beste familia-errenta batzuk (pentsioak, alokairuak, eta abar) berrikusteko eta negoziatzeko KPIa hartu ohi da ardatz.

KPIak adierazten du zein den batez besteko familia arrunt eta eredugarri batek eskuarki erosten dituen ondasun eta zerbitzuen saski finko baten kostua.

Inflazioaren neurketa: adibidea

Lehen urratsa: familiei inkesta bat egiten zaie, ondasunen saski finko bat definitzeko

4 garagardo eta 2 hanburgesa

Bigarren urratsa: urte bakoitzean ondasun bakoitzak duen prezioa aurkitzen da

Urtea (eurotan)	Garagardoaren prezioa (eurotan)	Hanburgesa prezioa
2001	1	2
2002	2	3
2003	3	4

Hirugarren urratsa: urte bakoitzean ondasunen saskiaren kostua kalkulatzen da

2001	(1 euro garagardoko x 4 garagardo) + (2 euro hanburgesa x 2 hanburgesa) = 8 euro	
2002	(2 euro garagardoko x 4 garagardo) + (3 euro hanburgesa x 2 hanburgesa) = 14 euro	
2003	(3 euro garagardoko x 4 garagardo) + (4 euro hanburgesa x 2 hanburgesa) = 20 euro	

Laugarren urratsa: oinarrizko urte bat hautatu (2001) eta urte bakoitzeko KPIa kalkulatzen da

2001	$(8 \text{ euro} / 8 \text{ euro}) \times 100 = 100$
2002	$(14 \text{ euro} / 8 \text{ euro}) \times 100 = 175$
2003	$(20 \text{ euro} / 8 \text{ euro}) \times 100 = 250$

Bosgarren urratsa: KPIa erabiltzen da aurreko urteko inflazio-tasa kalkulatzeko

2002	$(175 - 100) / 100 \times 100 = 75 \%$
2003	$(250 - 175) / 175 \times 100 = 43 \%$

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA: KPI

Demagun kontsumitzaileek hiru merkatugai erosten dituztela:

elikagaiak, etxebizitza eta osasunlaguntza.

Familien aurrekontuen gaineko balizko inkesta egingo bagenu, kontsumitzaileek beren aurrekontuaren

%20 elikagaietan gastatuko lukete,

%50 etxebizitzan eta

%30 osasunlaguntzan.

Oinarri-urtea 1995 izango da. Merkatugai bakoitzaren prezioa 100 izango da urte hartan;

Inflazioa: KPI

Horren ildotik, **KPI ere 100 izango da oinarri-urtean**
[$= (0,20 \times 100) + (0,50 \times 100) + (0,30 \times 100)$].

Jarraian, 1996ko kontsumoko prezioen indizea eta inflazio-tasa kalkulatuko ditugu.

Demagun 1996rako elikagaien prezioak %2 igo direla, hots, lehen 100 izanik orain 102 dira; etxebizitzaren prezioak %6 igo dira, lehen 100 eta orain 106; osasun-laguntzaren prezioak %10 igo dira eta lehen 100 zena orain 110 da.

1996ko KPI honelaxe kalkulatuko dugu berriro:

$$\text{KPI (1996)} = (0,20 \times 102) + (0,50 \times 106) + (0,30 \times 110) = 106,4$$

Beste era batera esanda, 1995 oinarri-urtetzat hartu eta orduko KPI 100 bada, 1996koa 106,4 da.

Horrela bada, 1996ko inflazio-tasa honako hau da:

$$[(106,4 - 100)/100] \times 100 = \%6,4 \text{ urteko.}$$

Zer dago Espainiako Estatuko KPIaren saskiaren barruan?

Koadroan zerrendatu ditugu **espainiar familia estandarrak** kontsumitu ohi dituen ondasun eta zerbitzuak —12 multzotan banatuta—. Multzo bakoitzaren pisua edo **ponderazioa** ere (ehunekotan) ipini dugu, oinarritzko urtea 2006 izanik.

<i>KPIren osagaiak (491 ondasun eta zerbitzu)</i>	<i>Ponderazioa</i>
1. Janariak eta alkoholik gabeko edariak	% 22,0556
2. Edari alkoholdunak eta tabakoa	% 2,8229
3. Jantziak eta oinetakoak	% 9,0280
4. Etxebizitza	% 10,3607
5. Etxeko tresneria	% 6,1520
6. Medikuntza	% 2,8259
7. Garraioa	% 14,8879
8. Komunikazioak	% 3,5845
9. Aisia eta kultura	% 7,1089
10. Irakaskuntza	% 1,6027
11. Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	% 11,5477
12. Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	% 8,0230

Euskal A Eko Kontsumoko Prezioen Indize (KPI) orokorra eta taldeka.

	2011		2012		2013		2014	
	Indizea	Urteko aldakuntza (Abendua - Abendua)	Indizea	Urteko aldakuntza (Abendua - Abendua)	Indizea	Urteko aldakuntza (Abendua - Abendua)	Indizea	Urteko aldakuntza (Abendua - Abendua)
Indize orokorra	101,4		104,2		104,8		104,1	
Janari eta edari alkoholgabeak	101,3		104,8		105,6		105,5	
Edari alkoholdunak eta tabakoa	101,9		107,9		113,3		113,1	
Jantziak eta Oinetakoak	109,1		109,5		109,8		110,2	
Etxebizitzenak	101,6		107,7		107,7		108,4	
Etxeko tresneria	100,7		103,4		103,2		103,0	
Medikuntza	97,9		101,7		111,1		110,8	
Garraioa	100,8		103,2		104,5		99,3	
Komunikazioak	99,1		96,3		90,0		85,0	
Aisia eta kultura	101,2		103,1		102,2		101,3	
Irakaskuntza	101,7		105,1		107,7		110,9	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	99,9		101,0		101,7		102,1	
Besteak	100,5		104,1		104,6		106,1	

INFLAZIO TASA

Azkenik, inflazio tasa kalkulatu da: KPI-ren bilakaera, bere hazkunde tasa.

BALIO NOMINALAK ETA BALIO ERREALAK

Zertarako da erabilgarria KPI ezagutzea?

Balioen bilakaera errealak ezagutzeko. Esate baterako:


SOLDATA NOMINALA HAZKUNDE TASA INFLAZIO TASA SOLDATA ERREALA

1.000,00 €			
1.035,00 €	3,50%	4%	-0,50%
1.100,00 €	6,28%	5%	1,28%
1.123,00 €	2,09%	4%	-1,41%
1.175,00 €	4,63%	2%	2,63%

Inflazioaren motak

- ◆ **Azpiko inflazioa.** KPIan inportatutako lehengai energetikoen (gasaren eta petrolioaren) eta landu gabeko elikagaien prezioen datuak **kenduta** lortzen da. Azpiko inflazioak hobeto neurtzen ditu herrialde barruko ekonomiarekin zerikusi handiena duten osagaiak, herrialdeko ekonomia-politikarentzat kontrolatzeko errazagoak diren osagaiak, alegia.
- ◆ **Desinflazioa.** Prezioak goratu egiten dira, baina gero eta motelago (inflazioa egon badago, baina gero eta txikiagoa da). Gurean, 1980ko hamarkada, adibidez, oso garai desinflazionista izan zen, inflazio-tasak bi zenbaki edukizetik (% 10etik gorakoak izatetik) zenbaki bakarra edukizera pasatu ziren-eta.
- ◆ **Deflazioa.** Inflazioaren kontrako kontzeptua da. Deflazioa **prezio-mailaren jaitsiera orokor eta iraunkorra** da, eta normalean langabezia izaten du lagun. Hau da, deflazioa inflazio-tasa negatiboa da.
- ◆ **Hiperinflazioa.** **Inflazio kontrolaezina** da (hileko inflazio-tasak % 50 gainditzen duenean). Egoera hiperinflazionista batean, jendeak ez du nahi dirua poltsikoan edukizetik, haren balioa ziztu bizian murrizten delako.

EAEko kontsumorako prezioen indizea (KPI)



Inflazioaren kausak

Inflazioaren kausak **bi multzo handitan** banatuko ditugu:
eskariarekin lotura dutenak (**eskariaren inflazioa**) eta
eskaintzaren jokabideari dagozkionak (**kostuen inflazioa**).


Inflazioaren kausak

- ① **Eskariaren inflazioa**: Eskari agregatuak ekonomiaren **produktio-ahalmena gaitzen badu**, **prezioak hazi egingo dira** oreka berria aurkitu arte.

Zerk eragiten du EA kurbaren igoera hori?
Edozein osagai izan liteke erantzulea

$$(EA = K + I + G + X - N)$$

zerga-politika eta diru-politika.



Inflazioaren kausak

① Eskariaren inflazioari nola aurre egin?


Inflazio mota hori konpontzeko nahitaezkoa da **eskariaren edo gastuaren hazkundera geldiaraziko duten politika ekonomikoak** abiaraztea.

Politika horiek bi zutabetan errotuko dira:

- (1) Administrazio publikoek gastua mugatu beharko du (hots, zerga-politika murriztailea jarriko da indarrean).
- (2) Sektore pribatuaren kontsumo-gastua ere mugatuko da, diru-politika murriztaile baten bidez interes-tasak igoz.

Inflazioaren kausak

- ② **Kostuen inflazioa**: Kostuen inflazioa sortzen da prezio-maila eskaintzaren eraginez igotzen denean; horregatik, **eskaintzaren inflazioa** ere deitzen zaio. Kostuen inflazioak produkzio-faktore guztiak aintzat hartzen ditu, soldatak, interesak, energia-baliabide eta lehengaiak.



Inflazioaren kausak

② Kostuen inflazioari nola aurre egin?

Errenta-politika jakin batzuk abiaraztea proposatzen da gehienez: besteak beste, **soldaten igoera mugatzeko edo diru-politika murriztailea**